# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5048

4/1995 LEGEA, azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas iharduerak arautzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

## AZAROAREN 10EKO 4/1995 LEGEA, JENDAURREKO IKUSKIZUNAK ETA JOLAS IHARDUERAK ARAUTZEKOA

### Zioen adierazpena

Agintariek betidanik izan dute jendaurreko ikuskizunen eta jolas-iharduerén, horien garapenaren eta horiek egiteko barrupe eta instalazioetako segurtasun-baldintzen ardura; are gehiago, herri-administrazio aginpidedunek, lizentzia eta baimenez baliatuz, zorrotz ikuskatzen dituzten gizarteko iharдueren artean ezartzen dituzte.

Egia da agintarien aldeko esku-hartze hori aldatuz joan dela denbora iragan ahala eta erregimen politiko ezberdinetan zehar; horrela, garai batean ikuskizun eta iharдueren edukia kontrolatu eta zentsuratzeko ardura azpimarratzen zen bezala, gizarte moderno eta demokratikoetan, batetik, askatasun printzipioa era honetako barrupe, esparru eta instalazioetan hartu beharreko segurtasun-neurriekin bateratzeari, eta, bestetik, ikusentzule eta erabiltzaileen eskubideak babesteari ematen zaio garrantzia. Ildo horretatik, eraikinetako osagaietan segurtasuna bilatzen etengabe urratsak ematen ari badira ere, aldizka, mota horretako barrupe eta saltegietan gertatutako istripu eta ezbeharren berri ematen dute idatzizko komunikabideek lehen orrietan, eta horrek, herritarrengan alarma sortarazteaz gain, zenbaitetan pertsonengan kalte handiak eta heriotzak ere badakartza. Bestalde, gazte-talde jakin batzuen artean denok ezagutzen ditugun ohitura arriskugarriak, oraintsu agertutakoak, nabarmendu beharra dago, eta horiek zaindu eta tratatu nahi ditugu arlo honetako kudeatzaileok, administrazioaren beste zenbait arlorekin batera.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

5048

LEY 4/1995, de 10 de noviembre, de espectáculos públicos y actividades recreativas.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente

## LEY 4/1995, DE 10 DE NOVIEMBRE, DE ESPECTÁCULOS PÚBLICOS Y ACTIVIDADES RECREATIVAS

### Exposición de motivos

Los espectáculos públicos y actividades recreativas, su desarrollo y las condiciones de seguridad de los locales e instalaciones en los que tienen lugar han concitado tradicionalmente el interés de los poderes públicos, hasta configurarlo en un ámbito de la actividad social sensiblemente intervenido por las Administraciones Públicas competentes a través de técnicas como la de las licencias y autorizaciones.

Ciertamente esa intervención de los poderes públicos ha ido modificándose al compás del tiempo y de los regímenes políticos, de tal suerte que, si en el pasado se subrayaba la preocupación por el control y censura del contenido de los espectáculos y actividades, en las sociedades modernas y democráticas se trata de hacer hincapié en la compatibilización del principio de libertad con las necesarias condiciones de seguridad que deben observar los locales, recintos e instalaciones de esa índole y en la salvaguarda de los derechos de espectadores y usuarios. En este sentido se hace preciso hacer referencia a que, no obstante el constante avance en la búsqueda de seguridad en los elementos constructivos, periódicamente saltan a las primeras páginas de los medios de comunicación noticias sobre accidentes y siniestros producidos en este tipo de locales y establecimientos, que generan la correspondiente alarma en la población y que en ocasiones producen graves daños personales y la pérdida de vidas humanas. Es de destacar asimismo la reciente aparición de ciertas costumbres peligrosas de todos conocidas en determinados sectores juveniles y

cuya adecuada atención y tratamiento interesa también, juntamente con otros sectores del quehacer administrativo, a la gestión propia de este ámbito.

Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioek arlo honetan eta gaur egunera arte egin diotenari begiratuz gero, arlo honetako legedi bereziari dagokionean, abuztuaren 27ko 2816/1982 E.D.k onartutako Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Ihardueren Polizi Arautegi Orokorrean oinarritu da, eta horretan jasotako arauak zaharkituak gelditu dira alderdi jakin batzuetan; gainera, zigorbide arloan ere gorengo auzitegiek adierazi izan dituzten gabezia nabariak antzeman zaizkio. Bestalde, arautegi horretan jasotako arauak ez datoz bat Euskal Herriko Estatutuak eratutako erakunde- eta administrazio-sistemaren ezaugarriekin.

La actividad que hasta el presente han venido desarrollando las Administraciones Públicas vascas en esta materia ha estado presidida, en cuanto Legislación específica de la misma, por el Reglamento General de Policía de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, aprobado por R.D. 2.816/1982, de 27 de agosto, cuyas regulaciones ya resultan obsoletas en diversos aspectos, amén de que ha acusado claras insuficiencias en materia de régimen sancionador, ya advertidas por los más altos tribunales. Por otra parte, sus normas no se ajustan a las características del sistema institucional y administrativo del País Vasco derivado del Estatuto.

Arlo honetan aurkitutako arazoek eta ezartzen ari zen legedi bereziaren akats eta gabeziek guztiz komenigarri eta egoki egiten dute Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 10.38 atalean izendatutako aginpideaz baliatzea, Eusko Legebiltzarraren legeei dagokien goi-mailako arau berriak emanez gai honetan.

Los problemas advertidos en la materia y esos defectos e insuficiencias detectadas en la legislación específica que venía aplicándose hacen plenamente aconsejable y oportuno el ejercicio de la competencia atribuida por el artículo 10.38 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, mediante una regulación nueva de la materia dotada del alto rango propio de las leyes del Parlamento Vasco.

Agintarien zereginean hain sentikorra den arlo honetan Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioen ihardunа hobetzeko arauak eman nahi ditu lege honek, eta horretarako lizentzia berri bat sortzen du, saltegirako lizentzia deritzona; horrela, bateragarri egiten dira, alde batetik, beharrezko lizentziak bideratu edo izapidetzeko agintegune bakarrak herritarrari eskaintzen dion merketasuna eta administrazio-mailako zentzuzkotasuna, eta, bestetik, zigorbide ezargarriaren maila egokiko araubide eguneratua eta arlo honetan esku hartu behar duten administrazioen arteko harremanen antolaketa zorrotza, beti ere bakoitzaren autonomia errespetatuz horien artean behar den konpromezu eta koordinaketa bilatzen duena. Ildo horretatik, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Iharduеren Euskal Kontseiluak bere eginkizunak zuzen egiteko izan beharreko jokabidearen garrantziaz ohartaraztea dagokigu. Arlo honen kudeaketan administrazioko bi maila, toki-administrazioa eta Autonomi Elkarte mailakoa, agertzen direnez

La presente ley pretende regular la mejora en la actuación de las Administraciones Públicas vascas en este ámbito tan sensible del quehacer público, para lo que instituye una nueva licencia como es la denominada de establecimiento, que hace compatible con la racionalización administrativa y económica para el ciudadano que significa la instancia única para la tramitación de las licencias necesarias, una regulación actualizada y con rango adecuado del régimen sancionador aplicable y una disciplina de las relaciones entre las distintas instancias administrativas llamadas a intervenir en la materia, que busca el necesario compromiso y coordinación entre ellas compatible con el respeto de su autonomía respectiva. En este sentido debemos llamar la atención sobre la importancia que debe tener el correcto desarrollo de la actividad del Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas. Una materia como la que nos ocupa, en cuya gestión aparecen insoslayablemente implicados dos escalones administrativos como son el municipal y el

behar-beharrez tartean hartuta, koordinazio edo elkarlotura eraginkorra antolatu behar da, bai araugintzarako bai izaera derrigorra duten iharduera garrantzizkoenetarako. Legeak helburu horri aurre egiteko eratzen du kontseilua, tartean hartutako administrazio bakoitzaren autonomiari zor zaion begirunearen kalterik gabe.

## I. ATALBURUA
## XEDAPEN OROKORRAK

**1. atala.- Xedea.**

Euskal Autonomi Elkartean egiten diren ikuskizun eta jolas-iharduerak arautzea da lege honen xedea, jabe edo antolatzaileak erakunde publiko zein pribatu, pertsona fisiko zein zuzenbidezkoak izan, eta irabaziak eskuratzeko helburua izan ala ez, edo ohituraz ala noizean b[illegible] egiten diren kontuan izan gabe.

**2. atala.- Definizioak.**

Jendaurreko ikuskizuntzat joko dira, lege honen ondorioetarako, antolatzaileek edo horien kontura diharduten artista, kirolari edo egileek eskainitako antzezpen, erakusketa, iharduera edo emanaldiak ikusteko jendea biltzen dutenak.

Jolas-ihardueratzat joko dira, lege honen ondorioetarako, erakunde antolatzaile batek denborapasarako edo jostaketarako bere barrupe edo zerbitzuak eskainiz edota berak antolatutako iharduerelan parte hartzea eskainiz jendea biltzen dutenak.

**3. atala.- Kanpoan gelditzen diren iharduerak.**

Lege honen ezarpen-eremutik kanpo gelditzen dira familiarteko bilerak edo hertsiki pribatuak diren ospakizunak, baita lan, erlijio, politika, sindikatugintza edo irakaskuntza arloko oinarrizko eskubideez baliatzekoak ere. Hala ere, iharduera horiek egiten diren barrupeek lege honetan eskatzen diren segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte".

autonómico, precisa de una coordinación eficiente tanto de las actuaciones normativas como incluso de las de carácter ejecutivo de mayor relieve. La ley crea el Consejo citado para servir decididamente esta finalidad, sin perjuicio del necesario respeto a la autonomía de cada una de las Administraciones en presencia.

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.- Objeto.**

Es objeto de la presente ley la regulación de los espectáculos y actividades recreativas de pública concurrencia que se desarrollen en la Comunidad Autónoma de Euskadi, con independencia de que sus titulares u organizadores sean entes públicos o privados, personas físicas o jurídicas, tengan o no carácter lucrativo, y se realicen de forma habitual o esporádica.

**Artículo 2.- Definiciones.**

Se consideran espectáculos públicos, a los fines de esta ley, aquellos capaces de congregar a un público para presenciar una representación, exhibición, actividad o proyección que le es ofrecida por los organizadores o por artistas, deportistas o ejecutantes que intervengan por cuenta de aquéllos.

Se consideran actividades recreativas, a los fines de la presente ley, aquellas capaces de congregar a un público en que una entidad organizadora ofrece el uso de sus locales y servicios o la participación en actos organizados por ella con fines de esparcimiento o diversión.

**Artículo 3.- Actividades excluidas.**

Se excluyen del ámbito de aplicación de esta ley las celebraciones de carácter estrictamente familiar o privado, así como las que supongan el ejercicio de derechos fundamentales en el ámbito laboral, religioso, político, sindical o docente. No obstante, los locales donde se realicen estas actividades deberán reunir las condiciones de seguridad exigidas en esta ley.

**4. atala.- Katalogoa.**

Araudi bidez finkatuko da lege honen menpe gelditzen diren barrupeen, instalazioen, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-ihardueren katalogoa, bakoitzak dituen berezitasunen arabera sailkatuta. Katalogo horrek lege honen eraskinean behin-behineko jasota datorrena ordezkatuko du.

**5. atala.- Arauketa.**

Eusko Jaurlaritzak arau bereziak eman ditzake katalogoko jendaurreko ikuskizunetarako edo jolas-iharduerетarako, gizartean, kulturan edo bestelako arloetan duten eraginagatik komenigarri denean. Arau horietan lege honetan xedatutakoa garatzeko berezitasunak jasoko dituzte, honako hauek izanik araugai:

a) Baimena lortzeko eskakizunak eta ihardunbidea.

b) Ikuskizun edo iharduera horiek egiteko barrupe edo esparruetako baldintza fisikoak eta segurtasunekoak.

c) Ikuskizuna edo iharduera egiteko modua eta baldintzak.

d) Ikuskizunak egiteko eta barrupeak irekitzeko eta ixteko ordutegia.

e) Lege honetan ezarritako arau-hauste eta zigorbidearekiko berezitasun eta mailakaketak.

**6. atala.- Kalifikazioa.**

1.- Eragindako sailek proposatuta Eusko Jaurlaritzak arautu ahal izango du ikuskizun eta ihardueren kalifikazioa. Kalifikazio horrek jendearen argibiderako balioko du, eta euskal erakundeek gara dezaketen sustapen-ekintzekiko ondorioak izan ditzake.

2.- Araudi bidez debekatu ere egin ahal izango dira zenbait ikuskizun eta iharduera, edo horietan parte hartzea mugatu, haur eta gazteak babesteko helburuarekin eta beti ere

**Artículo 4.- Catálogo.**

Reglamentariamente se establecerá el catálogo de locales, instalaciones, espectáculos públicos y actividades recreativas que queden sujetos a esta ley, clasificándose los mismos conforme a sus peculiaridades. Este catálogo sustituirá al que, con carácter provisional, figura como anexo a la presente ley.

**Artículo 5.- Reglamentaciones.**

El Gobierno Vasco podrá establecer las reglamentaciones específicas para aquellos espectáculos o actividades recreativas incluidas en el catálogo cuya incidencia social, cultural o de otra índole así lo aconseje. Dichas reglamentaciones contemplarán las peculiaridades en desarrollo de lo dispuesto en la presente ley referentes a:

a) Los requisitos y el procedimiento para su autorización.

b) Las condiciones físicas y de seguridad de los locales o recintos donde hayan de celebrarse.

c) El régimen y condiciones de celebración del espectáculo o actividad.

d) El régimen de horarios de celebración de espectáculos y apertura y cierre de locales.

e) Las especificaciones o graduaciones al régimen de infracciones y sanciones contemplado en esta ley.

**Artículo 6.- Calificación.**

1.- El Gobierno Vasco podrá regular a propuesta de los Departamentos afectados la calificación de los espectáculos y actividades. Dicha calificación tendrá carácter informativo para el público y podrá producir efectos en relación con la acción de fomento que las instituciones vascas puedan desarrollar.

2.- Reglamentariamente también podrán prohibirse determinados espectáculos y actividades, o condicionarse la participación en los mismos, con la finalidad de proteger a

Konstituzioaren 20. atalean aldarrikatutako eskubideak mugatzen ez badira.

**7. atala.- Bestelako arauak.**

Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-ihardueren inguruan hemen arautzen ez diren alderdiak zehazten dituen araubidearen kalterik gabe ezarriko da lege honetan xedatutakoa.

**II. ATALBURUA**
**JENDAURREKO IKUSKIZUNETARAKO ETA JOLAS IHARDUERETARAKO BARRUPE ETA INSTALAZIOAK**

**8. atala.- Barrupeetako segurtasuna.**

1.- Ikuskizun eta jolas-ihardueretarako eraikin, barrupe eta gainontzeko instalazioek pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko baldintza teknikoak bete beharko dituzte, eta, oro har, ikusentzuleen babesa ziurtatu eta besteei eragozpenik ez sortu, kasu bakoitzean bete beharreko arauak betez eta, bereziki, egituren sendotasuneko eta haien instalazioen erabilerako baldintzei, suteei eta beste talde-arrisku batzuei aurre egiteko eta horietatik babesteko neurriak, eta osasungarritasuna eta garbitasuna.

2.- Erabiltzen jarraitzen diren bitartean, ikuskizun eta jolas-ihardueretarako barrupe eta instalazio horiek aseguru-agiria izan beharko dute barrupe, instalazio eta zerbitzuetako egoera objetiboaren edo bertako langileek egindako lanaren ondorioz bertaratuei egindako kalteengatik, jabeen erantzukizun zibilari aurre egiteko.

Aseguruek ziurtatu beharreko gutxieneko kapitalak araudiz zehaztuko dira, ihardunaren ezaugarrien eta barrupeak duen edukieraren arabera.

3.- 300 pertsonatik gorako baimendutako gehienezko edukiera duten barrupe eta

la infancia y a la juventud, siempre que no suponga limitación de los derechos proclamados en el artículo 20 de la Constitución.

**Artículo 7.- Otras normas.**

Lo dispuesto en esta ley se aplicará sin perjuicio de lo que establezcan otras normativas que incidan en aspectos de los espectáculos públicos y actividades recreativas diferentes de los regulados por ella.

**CAPÍTULO II**
**LOCALES E INSTALACIONES DE ESPECTÁCULOS PÚBLICOS Y ACTIVIDADES RECREATIVAS**

**Artículo 8.- Seguridad en los locales.**

1.- Los edificios, locales y demás instalaciones destinadas a espectáculos y actividades recreativas deberán reunir las condiciones técnicas necesarias para garantizar la seguridad de personas y bienes y, en general, asegurar la protección del público y evitar molestias a terceros, de conformidad con las reglamentaciones exigibles para cada caso, particularmente en cuanto a las condiciones de solidez de las estructuras y de funcionamiento de los mismos, las medidas de prevención y protección contra incendios y otros riesgos colectivos, y las condiciones de salubridad e higiene.

2.- Mientras permanezcan en funcionamiento, dichos locales e instalaciones de espectáculos y actividades recreativas deberán disponer de una póliza de seguro que cubra la responsabilidad civil de sus titulares por daños a los concurrentes como consecuencia de las condiciones objetivas de los locales, sus instalaciones y servicios, o de la actividad del personal a su servicio.

Los capitales mínimos que deban cubrir las pólizas se determinarán reglamentariamente en función de las características de la actividad y del aforo del local.

3.- Los locales e instalaciones cuyo aforo máximo autorizado sea superior a 300

instalazioek eta araudiz behartuta gelditzen direnek larrialdietarako plana izan beharko dute, norbere babeserako indarrean dauden arauek xedatzen dutenari jarraituz.

4.- Udalek, ordenantza edo hirigintzako plangintza bidez, osatu egin dezakete lege honetan eta lege hau garatzen duten arauetan xedatzen dena, legearen menpe dauden barrupe eta instalazioak jarri eta irekitzeko baldintza edo mugak ezarriz.

**9. atala.- Lizentziaren ezinbestekotasuna.**

1.- Ikuskizun eta jolas-ihardueretarako barrupe eta instalazioak ireki aurretik, lege honetan aurrikusitako administrazio-lizentzia edo -baimenak beharko dira.

Horrez gain, ikuskizun- edo iharduera-mota aldatzeko, instalazioak berriztatzeko edo tokiz aldatzeko, aurretik lizentzia beharko da.

2.- Lege honetan jasotako lizentzia edo baimenak, jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-iharduerctarako arau bereziez bestelako arau orokorretan edo arlo honi dagozkionetan beharrezko direnen kalterik gabe eskatuko dira.

**10. atala.- Saltegirako lizentzia.**

1.- Saltegirako udal-lizentzia emateko beharrezkoa izango da lege honetako 8. atalean aipatutako baldintza teknikoak eta, hala badagokio, arau berezien, hirigintzakoen edo segurtasun-arauen arabera barrupea irekitzeko eska daitezkeenak bete izana aurrez egiaztatzea. Horretarako, behar izan daitezen udal-lizentzia guztiak instantzia bakarrean bideratuko dira eta, egoki gertatzen denean, sailkatutako ihardunei buruzko arauekin bat etorriz espedientea irekiko da.

personas y aquellos otros a los que la obligación les venga impuesta reglamentariamente, deberán disponer de un plan de emergencia, conforme a lo que dispongan las normas sobre autoprotección vigentes.

4.- Los municipios podrán, mediante sus ordenanzas o el planeamiento urbanístico, complementar la regulación de esta ley y su normativa de desarrollo, estableciendo condiciones o límites a la instalación y apertura de los locales e instalaciones sometidos a la presente ley.

**Artículo 9.- Sujeción a licencia.**

1.- Los locales e instalaciones destinados a la celebración de espectáculos o actividades recreativas deberán obtener, previamente a su puesta en funcionamiento, las licencias y autorizaciones administrativas que se contemplan en esta ley.

Será precisa, asimismo, la obtención previa de licencia para la modificación de la clase de espectáculo o actividad, la reforma de las instalaciones o su cambio de emplazamiento.

2.- Las licencias o autorizaciones contempladas en esta ley serán independientes de aquellas que resulten exigibles conforme a otras normas generales o sectoriales distintas a las específicas de espectáculos públicos y actividades recreativas.

**Artículo 10.- Licencia de establecimiento.**

1.- La licencia municipal de establecimiento se otorgará tras la acreditación del cumplimiento de las condiciones técnicas a que se refiere el artículo 8 de esta ley y, en su caso, las demás exigibles para la apertura del local conforme a reglamentaciones específicas, urbanísticas o de seguridad. Para ello la tramitación de todas las licencias municipales que fueren precisas se realizará en una única instancia, instruyéndose el expediente de conformidad con la normativa sobre actividades clasificadas cuando resulte procedente.

2.- 700 pertsonatik gorako edukiera duten barrupeak, zezenplazak eta araudiz ezar daitezen gainontzekoak direla eta, irekitako espedientearen zati baten edo osoaren kopia eskuratzeko ahalmena izango du Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak saltegirako lizentzia eman aurretik. Hori dela eta, udalek, hamar eguneko epean, barrupe horien inguruko lizentziak emateko espedienteak irekitzen direnean, horren berri eman beharko diote zuzendaritza horri.

3.- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, espedientea ikusi ondoren, hogeita hamar eguneko epean, erabakia hartuko du, eta arlo honetan indarrean dagoen legedia ezartzeko egoki deritzen neurri zuzentzaile edo baldintzatzaileen berri eman beharko dio udalari, hala badagokio. Neurri eta baldintza horiek derrigorrez ezarri beharko dira saltegirako udal-lizentzian.

**11. atala.- Lizentziaren edukia.**

1.- Saltegirako lizentzian, gutxienez, barrupearen izena eta kokalekua adieraziko dira, baita jabea, katalogoaren arabera zein ihardunetarako baimena duen, baimendutako gehienezko edukiera eta bete beharreko neurri zuzentzaileak edo baldintzak ere.

2.- Barrupeen jabeek agerian jarri beharko dute baimena eman duen administrazioak emandako agiria; bertan lizentziari dagozkion datuak eta araudiz zehaztuko diren beste batzuk jasoko dira.

**12. atala.- Lizentziaren izaera.**

1.- Lizentzia aldagarria eta ezeztagarria izango da.

2.- Lizentzia emateko beharkizun eta baldintzak ez betetzeak, eta bereziki, pertsonen segurtasuna edo jendearentzako osasungarritasuna arriskuan jarriz,

2.- La Dirección de Juego y Espectáculos del Gobierno Vasco podrá, facultativamente y con carácter previo al otorgamiento de la licencia de establecimiento, solicitar copia de parte o la totalidad de cada expediente instruido en relación a los locales cuyo aforo sea superior a 700 personas, los relativos a plazas de toros y otros que se determinen reglamentariamente. A estos efectos, los ayuntamientos comunicarán obligatoriamente a dicha Dirección, en el plazo de diez días, la iniciación de los expedientes de concesión de licencia relativos a dichos locales.

3.- La Dirección de Juego y Espectáculos dictará, a la vista del expediente, en el plazo de treinta días, resolución mediante la que comunicará al ayuntamiento, en su caso, las medidas correctoras o condicionantes que considere pertinentes en aplicación de la legislación vigente en la materia. Dichas medidas y condicionantes se incorporarán con carácter obligatorio a la licencia municipal de establecimiento.

**Artículo 11.- Contenido de la licencia.**

1.- En la licencia de establecimiento se hará constar, al menos, la denominación y emplazamiento del local, su titularidad, las actividades autorizadas conforme al catálogo, su aforo máximo permitido y las condiciones o medidas correctoras de obligado cumplimiento.

2.- Los titulares de los locales están obligados a exhibir, en lugar visible, un documento expedido por la administración autorizante en el que se hagan constar los datos referidos a la licencia y otros que se determinen reglamentariamente.

**Artículo 12.- Naturaleza de la licencia.**

1.- La licencia tendrá carácter modificable y revocable.

2.- El incumplimiento de los requisitos y condiciones en que se concedió la licencia, particularmente la variación sustancial de las características, condiciones, servicios o

barrupeetako ezaugarri, baldintza, zerbitzu edo instalazioak funtsean aldatzeak, lizentzia hori ezeztatzea ekarriko du, espediente laburra bideratu eta doakionari entzun ondoren.

3.- Arauen aldaketak direla eta, lizentzia emateko izan ziren beharkizun eta baldintzak aldatuko balira, hori ezeztatu ahal izango da baldin eta gerta daitezen hutsuneak zuzentzen ez badira. Horretarako, arau berrietan adieraziko da beharrezko egokitzeak zein epetan egin beharko diren.

4.- Lege honen 5. atalean aipatzen diren arau bereizietan, batetik, lizentziak aldibaterakoak edo berriztagarriak diren aurrikusi ahal izango da eta, bestetik, eskualdagarriak izateko, indarrean dagoen legedian eskatzen diren segurtasun-baldintzak betetzea eskatu ahal izango da.

5.- Edozein arrazoirengatik barrupea sei hilabetez, etengabe, itxita badago, lizentziak indarra galduko du, barrupeari eska dakizkiokeen baldintzek bere horretan jarraitzen duten jakiteko administrazio-egiaztapena egin arte.

**13. atala.- Administrazio-egiaztapena.**

1.- Ezingo da ikuskizun eta jolas-ihardueretarako barruperik ireki, harik eta administrazioak proiektuan jasota dauden zehaztapenak eta, hala badagokio, ezarri diren neurri zuzentzaileak bete direla egiaztatu arte.

2.- Aurreko azpiatalean aipatzen den egiaztapena agintaritza aginpidedunaren berariazko erabaki batean jasoko da. Lizentzia eman behar duen administrazioak horretarako izendatutako funtzionario edo beste pertsona edo erakundeen txostena ikusi ondoren emango du erabakia, eta horretarako doakienek administrazio horri proiektuan jasotako lanak burutu direla edo neurri zuzentzaileak hartu direla

instalaciones de los locales de forma tal que se ponga en peligro la seguridad de las personas o la salubridad pública, determinará la revocación de la misma, una vez tramitado el expediente sumario y con audiencia del interesado.

3.- Si por modificación normativa variaran los requisitos y condiciones en que se concedió la licencia, podrá revocarse la misma en el caso de que no se subsanasen las deficiencias resultantes. A tal fin, la nueva normativa señalará el plazo en el que habrán de realizarse las adaptaciones correspondientes.

4.- Las reglamentaciones específicas a que se refiere el artículo 5 de esta ley podrán prever el carácter temporal o renovable de las licencias, así como condicionar su transmisibilidad a que se cumplan las condiciones de seguridad exigidas por la legislación vigente.

5.- El transcurso ininterrumpido, por cualquier causa, de seis meses de inactividad del local determinará la suspensión de la vigencia de la licencia, hasta tanto no se efectúe la comprobación administrativa del mantenimiento de las condiciones exigibles al local.

**Artículo 13.- Comprobación administrativa.**

1.- Los locales destinados a espectáculos y actividades recreativas no podrán iniciar en ningún caso su funcionamiento sin la comprobación administrativa del cumplimiento de las especificaciones del proyecto y, en su caso, de las medidas correctoras que se hayan establecido.

2.- La comprobación a que se refiere el apartado anterior se plasmará en una resolución expresa de la autoridad competente, dictada a la vista de los informes de los funcionarios u otras personas o entidades acreditadas al efecto por la administración otorgante de la licencia, y deberá dictarse en el plazo máximo de un mes contado a partir de la comunicación por los interesados a la referida administración de la finalización de

jakinarazten dioten unetik hasi eta gehienez hilabeteko epea izango du.

3.- Aurreko azpiatalean aipatzen den egiaztapena egiterakoan, barrupearen jabeek aseguru-agiria kontratatu izana egiaztatu beharko dute edo, beharrezkoa bada, 8. atalean aipatutako larrialdietarako plana prestatu izana.

**14. atala.- Behin-behineko lizentziak.**

1.- Udalek barrupeak irekitzeko behin-behineko lizentziak eman ahal izango dituzte, sei hilabeteko luza ezineko eperako, ofizioz edo doakionak eskatu, aurreko atalean aipaturiko egiaztapena kontrakoa atera bada, beti ere horrek pertsona edo ondasunen segurtasunerako arriskurik ez badakar. Azken hori teknikari adituak luzatutako egiaztagiri bidez egiaztatu beharko da espedientean.

2.- Behin-behineko lizentzia hori eman ahal izateko aurrez lege honen 8.2 atalean ezarritako asegurua egin beharko da.

**15. atala.- Aldibaterako instalazioak.**

1.- Ikuskizun edo jolas-iharduueretarako erabili nahi diren aldibaterako instalazio edo egiturak zein instalazio edo egitura mugikor edo desmuntagarriak erabili ahal izateko, aurrez udalak ihardunbide berezi eta laburraren bidez emandako lizentzia beharko da.

2.- Instalazio finkoek ikusentzule eta egileentzat bete behar izaten dituzten segurtasun-, garbitasun- eta erosotasun-baldintza berberak bete behar izango dituzte aldibaterako instalazio edo egiturek, eta hori teknikari adituak luzatutako egiaztagiri bidez egiaztatu beharko da espedientean behar bezala.

3.- Ez da instalaziorako baimenik emango antolatzaileak erantzukizun zibileko arriskuari aurre egiteko asegurua hitzartuta daukala egiaztatzen ez badu edo, lege honen

la ejecución de las obras del proyecto o la adopción de las medidas correctoras.

3.- Al efectuarse la comprobación administrativa a que se refiere el apartado anterior los titulares del local vendrán obligados a acreditar la suscripción de la póliza de seguro y, en su caso, la disposición del plan de emergencia a que se refiere el artículo 8.

**Artículo 14.- Licencias provisionales.**

1.- Los ayuntamientos podrán otorgar licencias provisionales de apertura por un plazo improrrogable de seis meses, de oficio o a instancia de parte en los casos en que la comprobación administrativa referida en el artículo anterior resulte desfavorable, siempre que ello no implique riesgo para la seguridad de las personas o bienes, lo que deberá acreditarse en el expediente mediante certificación de técnico competente.

2.- La concesión de esta licencia provisional requerirá también en todo caso la previa cumplimentación de aseguramiento prevista en el artículo 8.2 de esta ley.

**Artículo 15.- Instalaciones eventuales.**

1.- Las instalaciones o estructuras eventuales, portátiles o desmontables que pretendan utilizarse en la celebración de espectáculos o actividades recreativas requerirán de previa licencia otorgada por el Ayuntamiento mediante un procedimiento especial y sumario.

2.- A las instalaciones o estructuras eventuales les serán exigidas condiciones de seguridad, higiene y comodidad para el público y los ejecutantes análogas a aquellas que lo sean para las instalaciones fijas, suficientemente acreditadas en el expediente mediante certificación de técnico competente.

3.- No se autorizará la instalación sin que el organizador acredite tener concertado seguro que cubra el riesgo de la responsabilidad civil y, en su caso, plan de emergencia, en los

8. atalean ezarritakoaren arabera beharrezkoa bada, larrialdietarako plana prestatu gabe, eta ezta indarrean dauden legeetan aurrikusitako gainontzeko beharrak bete gabe ere.

## III. ATALBURUA JENDAURREKO IKUSKIZUNAK ETA JOLAS IHARDUERAK

**16. atala.- Derrigorrezko baimenak.**

1.- Lizentzia duten barrupe edo instalazioetan egiten diren ikuskizun eta jolas-ihardueretarako ez da beharko beste saltegi-baimenik.

2.- Administrazio-baimena beharko dutenak honako ikuskizun edo jolas-iharduera hauek dira:

a) Saltegirako udal-lizentzian zehazten ez direnak.

b) Herri-bidean edo jendearentzako erabilera duten eremu zabaletan egiten direnak, egitura desmuntagarriak erabiliz edo erabili gabe.

c) Suziriak bota edo erretzeko ikuskizunak, Espainiako Konstituzioaren 149.1.26 atalean aurrikusitakoaren mendean.

d) Zezen-ikuskizunak.

e) Ezaugarri bereziak dituztelako edo lege honetan aipatzen den katalogotik kanpo daudenak.

3.- Aurreko azpiataleko baimenak emateko aginpidedunak honako hauek dira:

a) Oso-osorik egiten diren udalerriko organo aginpidedunak, a) eta b) kasuetan, eta hurrengo ataletan

términos del artículo 8 de esta ley, así como el cumplimiento de las demás obligaciones previstas en la legislación vigente.

## CAPÍTULO III CELEBRACIÓN DE ESPECTÁCULOS PÚBLICOS Y ACTIVIDADES RECREATIVAS

**Artículo 16.- Autorizaciones preceptivas.**

1.- Los espectáculos o actividades recreativas que se celebren en locales o instalaciones amparados por las respectivas licencias de establecimiento no precisarán de ulterior autorización.

2.- Necesitarán autorización administrativa los siguientes espectáculos o actividades recreativas:

a) Los que no resulten especificados en la correspondiente licencia municipal de establecimiento.

b) Los que se celebren en vías públicas u ocupen espacios abiertos de uso público, con o sin estructuras desmontables.

c) Los espectáculos consistentes en el lanzamiento o quema de artificios pirotécnicos sin perjuicio de lo previsto en el artículo 149.1.26 de la Constitución española.

d) Los espectáculos taurinos.

e) Los que tengan características excepcionales o no estén incluidos en el catálogo a que se refiere esta ley.

3.- Son competentes para conceder las autorizaciones a que hace referencia el apartado anterior:

a) En los supuestos a) y b), los órganos competentes del municipio donde se celebren íntegramente, con la salvedad

ezarritakoaren salbuespenaz.

b) Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza, c) kasuan, d) kasuan, egiten diren tokian egiten direla, e) kasuan eta, barrupearen edo ikuskizunaren edukiera 700 lagunetik gorakoa bada, a) kasuan.

c) Eusko Jaurlaritzaren Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritza, zati batean edo osorik herriarteko bideetan zehar egiten diren kirol-probetarako baimena emateko.

**17. atala.- Baimena emateko eskakizunak.**

1.- Aurreko atalean aipatutako ikuskizun eta jolas-iharduaeretarako baimena emango da, administrazio aginpidedunaren iritziz, batetik, ikuskizun edo ihardueraren ezaugarriak indarrean dagoen legediaren aurkakoak ez badira eta, bestetik, erakunde antolatzaileak jendearentzako barrupe edo instalazioaren erabilgarritasuna eta, barrupe-mota eta ihardunaren arabera, bete beharreko segurtasun- eta garbitasun-baldintzak bete izana behar bezala egiaztatu badu.

2.- Arau bereziek behartu egin ditzakete ikuskizun edo jolas-ihardueren antolatzaileak ikuskizun eta jolas-iharduera horien ezaugarriengatik sor daitezkeen arriskuei aurre egiteko asegurua egitera, eta baita, hala badagokio, zaintza- eta segurtasun-zerbitzuak izatera ere.

3.- Atal honetan aipatutako eskaerak ikuskizun edo iharduera egiteko aurrikusitako eguna baino gutxienez hamar egun aurretik aurkeztu beharko dira, arau bereziek beste epe batzuk eman ditzatenean izan ezik. Ikuskizun edo iharduera baino hirurogeita hamabi ordu lehenago horren inguruko erabakirik eman ez bada, baimena eman dela ulertuko da.

de lo dispuesto en los apartados siguientes.

b) La Dirección de Juego y Espectáculos del Gobierno Vasco, en los supuestos c), d) con independencia del lugar de su celebración, y e), así como en el supuesto a) si el aforo del local o del espectáculo es superior a 700 personas.

c) La Dirección de Tráfico y Parque Móvil del Gobierno Vasco, para la autorización de pruebas deportivas que discurran total o parcialmente por vías interurbanas.

**Artículo 17.- Requisitos de la autorización.**

1.- Procederá la autorización de los espectáculos y actividades recreativas a que se refiere el artículo anterior cuando, a juicio de la administración competente, las características del espectáculo o actividad no conculquen la legalidad vigente y la entidad organizadora haya acreditado suficientemente la disponibilidad de local o instalación o espacio público y el cumplimiento de las condiciones de seguridad e higiene exigibles según la actividad y tipo del local.

2.- Las reglamentaciones específicas exigirán a los organizadores de espectáculos o actividades recreativas el aseguramiento de los posibles riesgos derivados del espectáculo o actividad, en función de sus características, así como, en su caso, la disposición de servicios de vigilancia y seguridad.

3.- Las solicitudes a que se refiere este artículo deberán presentarse con al menos diez días de antelación sobre la fecha prevista para la celebración del espectáculo o actividad, salvo que reglamentaciones específicas dispongan plazos diferentes. Si setenta y dos horas antes de la celebración no se hubiera emitido resolución al respecto, se entenderá concedida la autorización solicitada.

**18. atala.- Debekatutako ikuskizun eta iharduerak.**

Ikuskizun edo iharduerak debekatu egingo dira, honako gorabeheraren bat gertatzen bada:

a) Pertsonei irainezko tratua ematen badiete edo eman badiezaiekete, edo pertsonen oinarrizko eskubideak hausten badituzte.

b) Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legean xedatutakoa hausten badute.

c) Ikuskizun edo iharduerak kalifikatzeko arauei jarraitzen ez zaielako, haur edo gazteentzat kaltegarri badira.

d) Arau-hauste penalak direnean.

**19. atala.- Erakunde antolatzaileak.**

1.- Lege honen ondorioetarako, ikuskizun eta/edo jolas-iharduereren erakunde antolatzailetzat hartuko dira administrazioaren edo ikusentzuleen aurrean haiek egitearen ardura hartzen duten pertsona fisiko zein zuzenbidezko pertsona publiko zein pribatuak.

2.- Antolatzaileak bere gain hartzen du ikuskizun edo iharduera egitearen erantzukizuna, bere arduragabekeriaz edo aurrikuspenik ezagatik ikuskizun edo iharduera horren ondorioz eragin daitezkeen kaltecei erantzunez.

3.- Aurreko azpiatalean jasotako agindua hobeto bete ahal izateko, antolatzaileak:

a) Indarrean dauden arauen arabera bete beharreko segurtasun- eta garbitasun-neurriak hartuko ditu, eta baita lizentzia edo baimenean zehazten direnak ere, zehazten badira.

b) Ikusentzule edo erabiltzaileei atal honetako a) puntuan aipatutako neurriak betetzeko eskatuko die.

**Artículo 18.- Espectáculos y actividades prohibidas.**

Se prohíbe la celebración de espectáculos o actividades recreativas en las que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) supongan o puedan suponer trato vejatorio para las personas o conculquen los derechos fundamentales de las personas,

b) infrinjan lo dispuesto en la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de protección de los animales,

c) resulten perjudiciales para la infancia o la juventud por apartarse de las normas de calificación de espectáculos o actividades, o

d) constituyan ilícito penal.

**Artículo 19.- Entidades organizadoras.**

1.- A los efectos de esta ley, se considerará entidad organizadora de espectáculos y/o actividades recreativas a las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que asuman ante la administración o el público la celebración de aquéllos.

2.- El organizador asume la responsabilidad derivada de la celebración del espectáculo o actividad, respondiendo de los daños que, como consecuencia del mismo, pudieran producirse por su negligencia o imprevisión.

3.- Para el mejor cumplimiento del mandato establecido en el apartado anterior, el organizador:

a) Adoptará las medidas de seguridad e higiene exigibles conforme a la normativa vigente, así como las medidas que, en su caso, se especifiquen en la propia licencia o autorización.

b) Exigirá al público o usuarios el cumplimiento de las medidas a que hace referencia la letra a) de este artículo.

c) Sartzen uzteko baldintzak ezarri ahal izango ditu, lege honen 21.1 d) atalean ezarritakoarekin bat etorriz, eta baita ikuskizuna edo iharduera arazorik gabe egiteko agindu eta arau bereziak ere, toki egokian argitaratuko direnak. Betekizun horiek bereziki indarkeriazko jarrerak azaldu, beste ikusentzule edo erabiltzaileei gogait eragin edo iharduera arazorik gabe egitea oztopatzen duten pertsonei sartzen ez uzteko jarriko dira.

d) Indarrean dauden arauen arabera barrupean sarrera debekatuta duten pertsona edo gauzen sarrera eragozteko neurriak hartuko ditu.

**20. atala.- Ordutegiak.**

1.- Eusko Jaurlaritzak araudi bidez finkatuko du ikuskizun eta jolas-ihardueretarako ordutegi orokorra; horretarako, kontuan hartuko du ikuskizun- edo iharduera-mota, urtaro edo urteko garaia, eta laneguna, jaiegun-bezpera edo jaieguna den.

2.- Udalek, herriko jaiak, jaiegun orokorrak edo turismorako interesa direla medio ordutegi bereziak zein kasutan eta zein ihardunbideren arabera onartu ahal izango dituzten ere araudian jasoko da.

**21. atala.- Erabiltzaile eta kontsumitzailearen babesa.**

1.- Erabiltzaile eta kontsumitzaileen babeserako, honako betebehar hauek ezartzen dira:

a) Jendaurreko ikuskizunetako publizitatean argi azaldu beharko dira horien edukiak eta zein baldintzatan egingo diren, aukeratzeko ahalmena ziurtatzeko moduan.

c) Podrá establecer requisitos de admisión de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21.1 d) de esta ley, así como instrucciones y normas particulares para el normal desarrollo del espectáculo o actividad, que se harán públicos convenientemente. Especialmente estos requisitos tendrán como objetivo impedir el acceso a personas que manifiesten comportamientos violentos, que puedan producir molestias a otros espectadores o usuarios, o bien que dificulten el desarrollo normal de la actividad.

d) Pondrá los medios para impedir la entrada en el local de aquellos objetos o personas que lo tengan prohibido según la normativa vigente.

**Artículo 20.- Horarios.**

